

2009/03/21

**Larrua hotz**Posted by Xanel under [gogoeta arinak](#)

Literatura gutxi irakurtzen dut. Aukeran nahiago izaten dut saioa irakurri. Duela hilabete ordea 'Larrua hotz' liburua (Txalaparta 2009) iritsi zitzaigun etxera, Albert Sanchez Piñol idazle katalanarena. Bikaina iruditu zait. Zubia aprobetxatuz liburuaren azken 100 orriak amaitzeko tartea hartu dut. Liburuak merezi zuela iruditzen zitzaidan. Azken hilabetean liburu inguruko aholkatzen ibili naiz, eta liburuaren irakurketa noiz bukatuko zai nengoen blogean ere horri buruz idazteko. Eta orain egia esateko ez dakit zehazki zer jarri. Irakurketak merezi duela esateaz aparte.

Liburuak atentzioa eman zidan, ez izenburuagatik, ez baita ulertzen, 'Larrua hotz', baizik eta batetik itzulpena Garro anaiek egin dutelako, Lander Garroren lanak beti izaten ditut fitxatuta, eta bestetik gure etxera iritsitako liburu alderantziz enkuadernatuta dagoelako, inprentako kapritxo baten erruz, pentsatzen dut.

Lander Garroren euskaraz kutsatzeagatik hasi nintzen beraz tapaki inbertituko liburu hau irakurtzen, autorea nor zen ere jakin gabe. Ondoren Piñolek liburu honekin sekulako ospea irabazi duela jakin dut. Eta ez nau harritu. Kontrara, normala iruditzen zait.

Planteatzen den situazioa fikziozkoa da. Irla bakarti batean, bi lagun hil-ala-biziko guda libratzen ari dira itsas-munstro batzuren aurka. Pertsonaia nagusiaren trataera psikologikoa hain da errealista, ordea, situazioan sartu besterik ez dagoela.

Paradoxa bat ere planteatzen du, hausnarketarako. Pertsonaia nagusia irlandarra da, errepublikar gudaria izandakoa. Baina irla munstroena zen eta inbaditu egin du. Ingeles bihurtu da. Hala ere, irlandar matxinoaren ikuspuntua, situazioa konprenitzeko aberatsagoa, ez du inoiz galtzen.

Piñolek manikeismoei ihes egin nahi izan diela iruditzen zait. Irlandaren independentziagatik borrokan nola sartu zen azaltzen duenean maitasunezko trataera ematen dio bere tutore eta abertzaletasun iturri izan zenari. Herri zapalduen ikasketa programa batean zein irakasgai beharko lirakeen zerrendatzen duen pasarte hori (32-35 orriak) liburutik atera eta pedagogia eskoletan banatzeko modukoa iruditu zait.

Protagonistak, ez du izenik, ihes irla galdu batera joatea erabakitzen duenean ere errespetuzko trataera jasotzen du. Irlandaz, irlandarretaz... nekatuta dago. Gudaz ere nekatuta dago, armez... Baina bere erretiroa ez da Thoreau bakezaletzara konbertitu batena. Liburuaren amaieran maitasuna/guda edo bakea aukeratu dezakeenean berriz ere maitasuna/guda aukeratzen baitu. Irlandarra hil arte.

Borroka konkretu batetaz desenkatatu zaitezke, baina horrek ez zaitu nahitaez bakezale inozo bat bihurtzen. Irlandarretaz nazkatu zaitezke, baina horrek ez zaitu ez-irlandar bihurtzen. Etabar.

Gehien gustatu zaidana Piñolek egoerak interpretatzeko eta haiek esaldi bakarrean sintetizatzeke duen gaitasuna izan da. Elementu naturalen eta bizidunen arteko konparazioak ere asko gustatu zaizkit eta nola askotan naturazko elementuak erabiltzen dituen egoera 'sozial edo psikologikoen' egia emateko.

Gutxiena, berriz, beste behin ohartzea Garrotarren euskara ez dela behin irakurrita kutsatzen ;P

**LEAVE A REPLY**
 Name

 Mail (will not be published)

 Website


 Notify me of follow-up comments via email.
**Archived Entry**

Post Date :

2009/03/21 at 10:29 pm

Category :

[gogoeta arinak](#)

Do More :

You can leave a response, or  
[trackback from your own site.](#)